



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



**DATUAK BABESTEKO EUSKAL
BULEGOAREN (EUSKA AUTONOMIA
ERKIDEGOA) ETA NUEVO LEÓNGO
(MEXIKOKO ERREPUBLIKA) ESTATUKO
GARDENTASUNEKO ETA INFORMAZIOA
ATZITZEKO BATZORDEAREN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA**

Monterrey (Nuevo León, Mexiko), 2011ko
abenduaren 5ean

BILDU DIRA

Alde batetik, Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria, Eusko Jaurjaritzaren Lehendakartzaren maiatzaren 6ko 81/2008 Dekretuaren (2008ko maiatzaren 14ko 90. zk.ko EHAA) bidez izendatua, egotzita dituen ahalak kontuan hartuta, eta hitzarmen hau izenpetzeko behar den boterea izanik.

Beste aldetik, Sergio Antonio Moncayo González jauna, Nueva Leóngo Estatuko Gardentasuneko eta Informazioa Atzitzeko Batzordearen komisiadun lehendakaria, Nueva Leóngo Estatuko Kongresuko LXXII Legegintzaldiak Gardentasunari eta Informazio Atzipenari buruzko Nueva Leóngo Estatuko (LTAINL) Legearen 95. artikulua bidez izendatua, Batzordearen izenean eta ordezkartzan, egotzita dituen ahalak kontuan hartuta.

Alde biak, bakoitza berak ordezkatzeko duen erakundearen izenean eta ordezkartza eginez, bertaratzen dira, eta hitzarmen hau izenpetzeko eskumena aitortzen diote elkarri. Hori dela eta, honakoa

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE
LA AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN
DE DATOS (COMUNIDAD AUTÓNOMA
DEL PAÍS VASCO), Y LA COMISIÓN DE
TRANSPARENCIA Y ACCESO A LA
INFORMACIÓN DEL ESTADO DE NUEVO
LEÓN (REPÚBLICA MEXICANA)**

En Monterrey, Nuevo León, México, a 5 de
diciembre de 2011

REUNIDOS

De una parte, D. Iñaki Vicuña de Nicolás, Director de la Agencia Vasca de Protección de Datos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en virtud del Decreto de nombramiento 81/2008, de 6 de mayo, de la Vicepresidencia del Gobierno Vasco (BOPV nº 90, de 14 de mayo de 2008), con las facultades que ostenta, y con poderes suficientes para la firma del presente convenio.

Y de otra parte, D. Sergio Antonio Moncayo González, Comisionado Presidente de la Comisión de Transparencia y Acceso a la Información del Estado de Nuevo León, nombrado con fundamento en lo establecido por el artículo 95 de la Ley de Transparencia y Acceso a la Información del Estado de Nuevo León (LTAINL), por la LXXII Legislatura del Congreso del Estado de Nuevo León, en nombre y representación de la misma, según las competencias que tiene atribuidas.

Ambos comparecen en nombre y representación de las correspondientes entidades y, de modo recíproco, se reconocen competencia para formalizar el presente Convenio, a cuyo efecto;



ADIERAZTEN DUTE

I.- Datuak Babesteko Euskal Bulegoa otsailaren 25eko 2/2004 Legeak arautzen duela, eta Bulegoa zuzenbide publikoko entea dela, nortasun juridiko propioa duela eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoak dituena, eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe betetzen dituena bere eginkizunak; eta bere helburu behinena dela datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidea babestea, bere eskumenen esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoan.

II.- Nueva Leóngo Estatu Libre eta Burujabeko Konstituzio Politikoaren 6. artikuluko V. Frakzioan eta Nueva Leóngo Estatuko Gardentasunari eta Informazioa Atzitzeari buruzko Legearen 87. artikuluan (2008ko uztailaren 19ko Estatuko Egunkari Ofizialean, 256 zenbakiko Dekretuaren bidez argitaratua) xedatutakoaren arabera, Nueva Leóngo Estatuko Gardentasuneko eta Informazioa Atzitzeko Batzordea konstituzionalki autonomoa den organoa dela, nortasun juridiko eta ondasun propioak dituena, eta erabat autonomoa izanik aurrekontu, jardute, erabakitze eta kudeaketa esparruetan, informazioa atzitzeko eskubidearen erabilera eta Estatuko agintaritzek dituzten datu pertsonalen babesa zabaltzeko eta sustatzeko ardura duela bere gain, bai eta gai horien inguruko desadostasun prozedurak ebazteko ere.

III.- Datuak Babesteko Euskal Bulegoak kontrol agintaritzaren izaera duela, eta legeak erabateko independentzia eta objektibotasuna aitortzen dizkiola bere eginkizunak burutzeko. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eginkizunak 2/2004 Legearen 17. artikuluan daude jasota, eta zuzendariak du erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzaren hitzarmenak sinatzeko ahala, Datuak Babesteko Euskal

DECLARAN

I.- Que la Agencia Vasca de Protección de Datos regulada por Ley 2/2004, de 25 de febrero, es un ente de derecho público, con personalidad jurídica propia y plena capacidad pública y privada, que actúa con plena independencia de las administraciones públicas en el ejercicio de sus funciones, cuya principal finalidad es garantizar, en el ámbito de las competencias de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el derecho fundamental a la Protección de Datos Personales.

II.- Que de conformidad con lo dispuesto por el artículo 6º, fracción V, de la Constitución Política del Estado Libre y Soberano de Nuevo León, y 87 de la Ley de Transparencia y Acceso a la Información del Estado de Nuevo León, publicada en el Periódico Oficial del Estado el día 19 de julio de 2008, mediante decreto número 256, la Comisión de Transparencia y Acceso a la Información del Estado de Nuevo León, es un órgano constitucionalmente autónomo, especializado e imparcial, con personalidad jurídica y patrimonio propio, con autonomía presupuestaria, operativa, de decisión y de gestión, encargado de promover y difundir el ejercicio del derecho de acceso a la información, la protección de datos personales en posesión de las autoridades del Estado, así como resolver sobre los procedimientos de inconformidad en estas materias.

III.- La Agencia Vasca de Protección de Datos tiene la consideración de *autoridad de control*, y la ley le garantiza la plena independencia y objetividad en el ejercicio de su cometido. Las funciones de la Agencia Vasca de Protección de Datos le vienen fijadas en el artículo 17 de la Ley 2/2004, correspondiendo a su Director la formalización de Convenios de Colaboración con entidades públicas y



Bulegoari esleitutako eginkizunak hobeto gauzatzeko (DBEBren Estatutua onartzen duen urriaren 18ko 309/2005 Dekretuaren 7.2 m) artikulua).

IV.- RICTAINLen 10. artikuluko III. Frakzioak xedatutakoarekin bat, Batzordeak duela —LTAINLen xedatutakoa betetze aldera— ondoko erakundeekin hitzarmenak, lankidetzak oinarriak, koordinazio mekanismoak eta gainerako adostasunezko egintzak izenpetzea onartzeko ahalak: batetik, betebeharreko subjektuekin, entitate federatiboekin, udalerriekin, Distrito Federalarekin, Informazioa Atzitzeko Institutu Federalarekin (IFAI) edo informazio atzitzeari buruzko beste erakundeekin; eta bestetik, erakunde publiko edo pribatuekin, nazioaren nahiz nazioarteko hezkuntza erakundeekin eta ikerketa zentroekin. Era berean, edozein erako kontratu eta hitzarmen izenpetzeko ahal ere badu, Batzordearen eginkizunak indartzeko helburua badute.

V.- Alde biek nahi dutela hitzarmen bat izenpetu, erakunde biek arteko lankidetzak esparru gisa, biek artean adosten dituzten esparruetan lankidetzarako, prestakuntzarako eta berriarazo programen eta proiektuen garapenerako jarduerak egiteko elkarrekin. Ondorioz, alde biek adierazi nahi dute elkarrekin arteko lankidetzak harremana ona eta eraginkorra izatea nahi dutela, elkarrekin onura lortzearren.

VI.- Kontuan hartuta, alde biek zati batean helburu berdinak eta osagarriak dituztela, adierazi nahi dutela hitzarmen hau izenpetu nahi dutela bakoitzak bere eginkizunak hobeto burutzeko asmoz; hori dela eta, agiri hau formalizatzen dute ondoko klausulak kontuan hartuta.

privadas, para un mejor desempeño de sus funciones (Artículo 7-2.m del Decreto 309/2005 de 18 de octubre, por el que se aprueba el Estatuto de la AVPD).

IV.- Que de acuerdo con el artículo 10, fracción III, del RICTAINL, tiene como atribución el aprobar la suscripción de convenios, acuerdos, bases de colaboración, mecanismos de coordinación, y demás actos consensuales a celebrarse con los sujetos obligados, las entidades federativas, los municipios, el Distrito Federal, el Instituto Federal de Acceso a la Información (IFAI), o los respectivos organismos de acceso a la información, así como con organismos públicos o privados, instituciones de educación y centros de investigación, tanto nacionales como extranjeros, a fin de lograr el cumplimiento de la LTAINL; y en general, todo tipo de contratos o convenios que conlleven al fortalecimiento funcional de la Comisión.

V.- Que es deseo de ambos suscribir un Convenio que sirva de marco para la realización de actividades conjuntas de cooperación, formación, desarrollo de programas y proyectos específicos en las áreas que se determine de mutuo acuerdo. En consecuencia, se pretende dejar constancia del interés de las partes de mantener una colaboración eficiente y efectiva que sea de mutuo provecho.

VI.- Que ambas entidades, considerando que tienen objetivos en parte coincidentes y complementarios, desean suscribir este Convenio de colaboración a fin de mejorar sus respectivos cometidos, para lo cual formalizan el presente documento con arreglo a las siguientes:



KLAUSULAK

CLÁUSULAS

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea da erakunde lankidetzarako eta koordinaziorako aldi bati ekitea Nueva Leóngo Estatuko Gardentasuneko eta Informazioa Atzitzeko Batzordearen eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren artean, datu pertsonalak babesteko eskubidearen zabalkundea bultzatzeko, eskubide horri buruzko azterlanak eta ikerlanak sustatzeko eta alde bien intereseko esperientziak elkarrekin trukatzeko.

BIGARRENA.- KONPROMISOAK

Aurreko estipulazioan aurreikusitako helburua erdiesteko, alde biek honako jarduerak burutzeko neurriak hartuko dituzte:

- a) Bata besteari jakinaraztea zer dagoen aurreikusita bakoitzaren esparruko araudian datu pertsonalak babesteari buruzko oinarritzko eskubidearen printzipio eta eskubideen gainean eta eskubide horien benetako inplementazioaren gainean; beti ere kontuan hartuta legedi nazionaletan, estataletan edo tokiko legedietan egon daitezkeen murrizketak.
- b) Datu pertsonalak babesteari buruzko ikerketak, azterlanak, azterketak eta txostenak egiten laguntzea eta egin daitezen sustatzea.
- c) Datu pertsonalak babesteari buruzko lanak ekoiztea xede duten proiektu editorialetan parte hartzea.

PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO

El objeto del presente convenio es establecer una etapa de colaboración y coordinación institucional, entre la Comisión de Transparencia y Acceso a la Información del Estado de Nuevo León y la Agencia Vasca de Protección de Datos, con la finalidad de promover la difusión del derecho a la protección de datos de carácter personal, el fomento de estudios e investigaciones al respecto, así como el intercambio de experiencias de mutuo interés.

SEGUNDA.- COMPROMISOS

Para la consecución de los objetivos previstos en la cláusula anterior, ambas partes adoptarán las medidas necesarias a fin de:

- a) Informar recíprocamente, con el respeto debido a las restricciones que pudieran existir en sus respectivas legislaciones nacionales, regionales, estatales o locales, de lo previsto en sus regulaciones en relación con los principios y derechos relativos al derecho fundamental a la protección de datos personales, y a su efectiva implementación.
- b) Fomentar y contribuir en la realización de investigaciones, estudios, análisis e informes en materia de protección de datos personales.
- c) Participar en proyectos editoriales que tengan como objetivo la producción de obras en materia de protección de datos personales.



- d) Jarduera koordinatuak garatzea datu pertsonalak babesteari buruzko oinarritzko eskubidearen zabalkunderako eta pertsonen eskubidearen gaineko prestakuntza emateko, batez ere, eskubideari atxikita dauden eskubideen eta betebeharren gainekoa.
- e) Hitzarmen honen esparruarekin zer ikusia duten gaiekiko garrantzitsutzat jotzen diren ezagupenen trukean elkarrekin lankidetzan aritzea, batez ere honakoekiko:
- Datu pertsonalak babesteari buruzko esparruan jardunbide onenak identifikatzea.
 - Erraztasunak ematea bata bestearen "Dokumentu-funtsak" eskuratzeko, herrialde bietan indarrean dagoen legediak halakorik egiten uzten duen neurrian.
 - Erakunde batak nahiz besteak egiten dituen jarduera eta ekitaldiei buruzko prentsa-oharrak argitaratzea bakoitzak bere komunikabideetan.
 - Indarrean dagoen datu pertsonalak babesteari buruzko tokiko, eskualdeko, estatuko, nazioko edo nazioarteko legedia aztertzea bultzatzea, legedia eguneratze, harmonizatze eta hobetze aldera.
 - Edozein jarduera arlotan datu pertsonalen gaiarekin zerikusia duten egoeren azterketa sustatzea, baldin eta hitzarmen hau izenpetzen duten alde bietako edozeinen arreta eta erantzuna eskatzen badute.
- d) Desarrollar actuaciones coordinadas para la difusión del derecho a la protección de datos de carácter personal, así como para formar a las personas en el conocimiento de su contenido y especialmente en los derechos y deberes que llevan aparejados.
- e) Cooperar en el intercambio de los conocimientos que estimen pertinentes, respecto de los temas relacionados con el marco del presente Convenio y, en particular, en lo siguiente:
- Identificar mejores prácticas en materia de protección de datos de carácter personal.
 - Facilitar el acceso a los "Fondos documentales" de cada una de las partes firmantes, en la medida en que así lo permita la legislación aplicable de ambos países.
 - Publicar, a través de los respectivos medios de comunicación, notas de prensa relativas a la celebración de eventos y actividades que lleve a cabo cada Institución.
 - Impulsar el análisis de la legislación local, regional, estatal, nacional e internacional vigente sobre protección de datos de carácter personal, con la finalidad de atender a su actualización, armonización y mejora.
 - Promover el estudio de situaciones relacionadas con la protección de datos de carácter personal que surjan en un sector de actividad determinado, y que requieran la atención y respuesta de las partes firmantes del presente Convenio.



- Ikerketa zientifikoa eta garapen teknologikoa bultzatzea ikerketa zientifikoko programen eta garapen eta berrikuntza teknologikoaren esparruan, eta aztertzea zein den datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen legediarekin duen harremana.
- Bi erakundeetako zerbitzari publikoek ikasketak eta praktika aldiak egitea sustatzea Datuak Babesteko Euskal Bulegoan eta Nueva Leóngo Estatuko Gardentasuneko eta Informazioa Atzitzeko Batzordean. Horretarako, dagokion erakundeak tutore bat izendatuko du, beharrezkoa ikusten bada, ikasketak eta praktika aldiak koordinatzeko. Edozelan ere, ikasketek eta praktika aldiek ez dute ordainsaririk izango eta erantzukizun zibila hitzarmen hau izenpetzen duten aldean kontura izango da, hau da, ikasketak eta praktika aldia burutzen ari den zerbitzari publikoa nongoa den, erakunde horren kontura.
- Datu pertsonalak babesteari buruzko eskubidea hedatzeko jardunaldiak edo bestelako ekitaldian antolatzea, bi aldean adostasunarekin, Mexikon eta Euskal Autonomia Erkidegoan.
- Fomentar la investigación científica y el desarrollo tecnológico en el ámbito de los programas de investigación científica, desarrollo e innovación tecnológica y su relación con la legislación vigente de protección de datos personales.
- Promover la realización de estudios y prácticas en la Agencia Vasca de Protección de Datos y en la Comisión de Transparencia y Acceso a la Información del Estado de Nuevo León, por parte de servidores públicos de ambos entes. En este sentido y si fuere necesario, ambos entes, según corresponda, nombrarán un tutor que se encargue de la coordinación de los estudios y prácticas. No obstante, estos no tendrán carácter retributivo y la responsabilidad civil correrá a cargo de los entes firmantes, dependiendo de para quién labore el servidor público beneficiado con los estudios y prácticas.
- Organizar, con el acuerdo de ambas partes, jornadas o eventos de difusión del derecho a la protección de datos de carácter personal, tanto en México, como en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

HIRUGARRENA.- **KONFIDENTZIALTASUNA**

Erakunde biek bata bestea behartzen dute bi herrialdeetan egun indarrean dagoen eta ezargarria den datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzera.

Hitzarmen honen ondorioz, erakundeek eskuratzen duten bata besteari buruzko informazioa eta dokumentazioa konfidentzialak izango dira, eta ezin izango

TERCERA.- CONFIDENCIALIDAD

Ambos entes se obligan al cumplimiento de la normativa vigente y aplicable en materia de Protección de Datos de Carácter Personal que en la actualidad rige en ambos países.

Toda la información o documentación que cada uno de los entes firmantes obtenga del otro por causa del presente convenio tendrá confidencialidad y no podrá ser



da jakinarazi edo argitaratu, eta egitekotan alde biek adostutako baldintzak kontuan hartuta egingo da. Ez da informazio konfidentzialtzat joko legeen arabera edo ebazpen judizialen edo eskumendun agintaritzaren egintzen arabera jakinarazi beharrekoa den informazioa.

LAUGARRENA.- DIRU EKARPENAK

Hitzarmen honek ez dakar diru kosturik.

Lankidetzak diru ekarpenak egin beharra ekarriz gero, alde biek berariaz adostuko dituzte zenbatekoak, eta helburu horrekin izenpetzen dituzten berariazko hitzarmenetan islatu beharko dira, edo berariazko hitzarmenen klausuletan edo berariazko hitzarmenen atxikitako eranskin batean.

Hemen finkatu duguna garatzeko berariazko hitzarmenek gastuak badakartzate, bideragarriak izateaz gain, alde bien aurrekontu baliabideen egoeraren menpe geratuko dira; eta horrelako hitzarmenak izenpetzeko, gastuen espedientea onartzeko eta kontu-hartzaitzako arau ezargarriak bete beharko dira.

Esanak esan, hitzarmen honen helburuetarako finantzazio-iturri osagarriak bilatzeko konpromisoa hartzen du bi aldeek.

comunicada o publicada sino en los términos y condiciones que entre las partes se acuerde. Se excluye de la categoría de información confidencial toda aquella información que deba ser revelada de acuerdo con las leyes o con una resolución judicial o acto de autoridad competente.

CUARTA. APORTACIONES ECONÓMICAS

El presente convenio no conlleva gasto alguno.

En caso de ser necesarias aportaciones económicas por los costes que genere la colaboración, las cantidades serán acordadas expresamente por las partes y deberán ser reflejadas en los Convenios Específicos que a tal fin se suscriban, sean detalladas en el clausulado de los mismos o en un anexo añadido.

La firma de todo convenio Específico en desarrollo de lo aquí establecido, que implique gastos para cualquiera de las partes, estará supeditada a la viabilidad del mismo y a las disponibilidades presupuestarias de cada parte, en su tramitación habrán de observarse las normas sobre aprobación de expediente de gasto y las de intervención que sean aplicables.

Ambas partes se comprometen, en cualquier caso, a la búsqueda de fuentes de financiación complementarias para los fines del presente Convenio.



BOSGARRENA.- JABETZA INTELEKTUALA

Honakoa izenpetzen duten bi aldeek adosten dute bakoitzak egindako lan intelektualaren titulartasunaren eskubideak gordeko dituztela, herrialde bakoitzeko jabetza intelektualaren esparruko legeek ezartzen dutenaren arabera.

Elkarren artean egindako obrak, materialak eta lanak badira, erakunde biek adosten dute titulartasunaren arloko eskubideak partekatuko dituztela, jabetza intelektualaren arloan indarrean dauden legeek ezartzen dutenaren arabera.

Honakoa izenpetzen duen bi aldeetako batek nahi badu beste aldeak emandako ikerketa baten gaineko emaitzak edo informazioa bere argitalpen batean erabili, alde aurretik baimena eskatu beharko dio beste aldeari, idatziz, esparru horretako lege-xedapenek ezarritakoa bete beharko du nahitaez.

Honakoa izenpetzen duten aldeek ezin izango dute beste erakundearen markarik, logotiporik edo ikurrik erabili, baldin eta lehenago ez badu idatziz baimena jaso edo alde biek ez badute idatziz adostu.

SEIGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA

Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratzen da. Batzordea Datuak Babesteko Euskal Bulegoko kide bik eta Nueva Leóngo Estatuko Gardentasuneko eta Informazioa Atzitzeko Batzordeak izendatzen dituen beste kide bik osatuko dute.

QUINTA.- PROPIEDAD INTELECTUAL

Las partes firmantes convienen en preservar la titularidad de los derechos de obras intelectuales que sean producto de su trabajo respectivo, de conformidad con lo que establecen las leyes en materia de propiedad intelectual de las respectivas legislaciones.

En el caso de aquellas obras, materiales y trabajos, entre otros, que sean producto de un trabajo conjunto, ambos entes convienen en compartir la titularidad de los derechos, de conformidad con lo que establezcan las leyes vigentes en materia de propiedad intelectual.

Para el caso de que alguna de las partes firmantes deseara utilizar en una publicación propia información o resultados de una investigación proporcionada por la otra parte, deberá solicitar previamente autorización escrita a ésta, y ajustarse a las disposiciones legales que en la materia correspondan.

Los entes firmantes no podrán utilizar la marca, logotipo o emblema de la otra institución en publicaciones ni programas si antes no está autorizado o expresamente convenido por escrito entre ambas.

SEXTA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO

Para el seguimiento de la ejecución del presente Convenio se constituye una Comisión que estará integrada por dos representantes de la Agencia Vasca de Protección de Datos y por otras dos personas que designe la Comisión de Transparencia y Acceso a la Información del Estado de Nuevo León.



Jarraipen batzordeko burua Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria izango da, edo berak eskuordetzen duen pertsona.

Erabakiak ados jarrita hartuko dituzte, alde biek beste zer edo zer adostu ezean.

Hona hemen Jarraipen Batzordearen eginkizunak:

- Hitzarmen honetan ezarritakoa gauzatzeko jarduera zehatzak proposatzea.
- Hitzarmen honen interpretazioa dela-eta edo hitzarmena betetzea dela-eta agertzen diren arazoak konpontzea eta hitzarmena hobetzeko proposamenak egitea; beti ere, hitzarmena izenpetzen duten bi aldeek adostasunarekin.
- Hitzarmen honen ondorio den lankidetzaren eta kooperazioarako onuragarriak izan daitezkeen bestelako eginkizunak.

ZAZPIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA

Hitzarmenak bi urteko indarraldia izango du izenpetzen den unetik hasita, eta hitzarmena berritzeko alde biek berariazko akordioa beharko da, idatziz.

Bestalde, alde biek ere erabaki dezakete hitzarmena bertan behera uztea, edo alde bietako batek ere bai, baldin eta besteari jakinarazten badiu, idatziz, gutxienez hiru hilabete lehenago.

Edozelan ere, hitzarmena bertan behera utzi arren, ez du eraginik izango lehendik hasita dauden jarduera edo ekintzetan, bukatu egin beharko baitira.

Dicha Comisión será presidida por el Director de la Agencia Vasca de Protección de Datos o persona en quien delegue.

Los acuerdos se tomarán por consenso, salvo que las partes, de común acuerdo, dispongan otra cosa.

Corresponde a la Comisión de Seguimiento las siguientes funciones:

- Proponer actuaciones concretas en ejecución de lo dispuesto en el presente Convenio.
- Resolver los problemas de interpretación y cumplimiento que se deriven del presente Convenio y proponer mejoras del mismo, que deberán ser acordadas por las dos partes que lo suscriben.
- Cualesquiera otras que redunden en beneficio de la colaboración y cooperación de la que es objeto el presente Convenio.

SÉPTIMA.- VIGENCIA DEL CONVENIO

El presente Convenio tendrá una vigencia de dos años a partir de la fecha de su firma, requiriéndose para su renovación el acuerdo expreso y escrito de las partes.

No obstante lo anterior, el Convenio podrá darse por finalizado por mutuo acuerdo o mediante la denuncia por cualquiera de las partes firmantes, comunicada por escrito a la otra, con una antelación mínima de tres meses.

En cualquier caso, la extinción del presente Convenio no afectará a las actividades o acciones iniciadas a su amparo, que proseguirán hasta su finalización.



ZORTZIGARRENA.- SOR DAITEZKEEN AUZIAK

Hitzarmenen honen ondorioz sor daitezkeen interpretazio, garapen, aldaketa, gauzatze edo ondorioei buruzko desadostasunak Jarraipen Batzordeak konpondu beharko ditu

Jarraipen Batzordeak ez badu auzia konpontzen, eta alde bietako batek erabakitzen badu auzi horregatik hitzarmena bertan behera uztea, erabakia beste aldeari jakinarazi beharko dio, eta jakinarazpen horrek aurreko klausulan adierazitako bertan behera uzteko arrazoia ondo bera izango du.

Eta horrela jasota gera dadin, eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ados daudela agertze aldera, dokumentu honen hiru kopia izenpetzen dituzte, orri guztietan, goiburuan aipatutako lekuan eta egunean.

Datuak Babesteko Euskal Bulegotik

Por la Agencia Vasca de Protección de Datos

D. Iñaki Vicuña de Nicolás jn.
Zuzendaria/Director

OCTAVA.- CUESTIONES LITIGIOSAS

Las cuestiones litigiosas surgidas de la interpretación, desarrollo, modificación, resolución y efectos que pudieran derivarse de la aplicación del presente Convenio deberán de solventarse en el seno de la Comisión de Seguimiento prevista en el mismo.

En caso de que la cuestión litigiosa no fuera solventada en dicha Comisión, y alguna de las partes la considera de suficiente entidad como para desvincularse del Convenio, deberá manifestar su intención a la otra parte, teniendo dicha voluntad manifiesta el mismo efecto que la denuncia descrita en la cláusula anterior.

Y para que conste a los efectos oportunos y en prueba de conformidad, las partes firman el presente documento por triplicado y en todas sus hojas en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

Nueva Leóngo Estatuko Gardentasuneko eta Informazioa Atzitzeko Batzordearen aldetik

Por la Comisión de Transparencia y Acceso a la Información del Estado de Nuevo León

D. Sergio Antonio Moncayo González jn.
Komisiodun lehendakaria
Comisionado Presidente